

II

BIMAKILA BIDEAN. 3

Eta, makilak gora alhurrcan, hamar hurratsetan, bost hurra-
tsetan, hiru hurratsetan dira orai, eta, hor, ximixta batean,
makila ikaragarriak elgarretaratzen dira!

Bainan, hainbertzenarekin, eta bet-betan, jauzi batean, elga-
rretarik urruntzen dira bi gizonak:

- Zu zirela, Nakero?!...
- Ba, eta zu ere hor, Piarre?!...
- Debruen bisajal!...
- Zertako?
- Nahiagoko bainuen bertze bat izan bazina!
- Alta, nik ere, hala hala!...

Eta ixil ixila han zauden, Donazaharreko jauregiari hurbil,
irrege-bidearen gainean xutik, beren makilak lurrean sinkatu-
rik, makilen gainean eskuak aztaparka* kurutzaturik... Eta,
hala hala, aspaldiko, edo -hobeki erraiteko- bethiko adixki-
deak ziren Nakero eta Piarre, eta elgarren beldurrez edo ber-
tzela, egundaino bat bertzeari lotzerat ez ziren oraino atrebitu.

Eta, ^{ezte} ezte eztia, huna non hasten den Piarre:

- Errazu, Nakero?
- Zer?

-Huntaraz geroz, bertze batzu bagine bezala egin bagin-
deza?...

- Hori bera nuen gogoan eta, Piarre!
- Bazirela, beraz?
- Ba, Piarre, eta gogotik!...

Eta, hantxet, gehiagokorik gabe, makilka berehala hasi
ziren Garaziko bi makilkari hoberenak; xirti-xartaka lehenik,
lgarren aztatze^o eta miazteko bezala; azkarkiango gero, eskuen
berotzeko. Eta, erran gabe doana, heien xirti-xartek^m berek,
zuek eta ni bezalako gizona lehen ukaldian xirtxikatukoⁿ
zuten! Hek, irriz ari ziren!...

-Zer makila duzuna, Piarre!

-Zer esku-muthurrak eta ukal^{ia}, zure makilaren buruan,
Nakero!

Eta orai, irri xuri bat ezpainetan, etxe-ogi garbia jaten
duten hortz eder batzu kirrikan, ari ziren, ari!... Arradoiko
harria bi zati eginen zuten heien ukaldiak, eta bardin Arrolanen-
Harria Itsasun! Nork erran du: erhoturik, egun batez, ezpata
eskuan, Olivier, bere adixkide hoberenari lothu zela Arrolan
hoi? Ba, nork kondatu du, heien soldadoak oro, harriturik,
bazterretik beha egon zirela, guduak zirauenon, bi adixkideen
artean sartzerat nehor ezin menturatuz? Ez dakit, bainan, niri
iduri, ez Olivierik, ez Arrolanik, nehor sekulan ez dela gudu-
atu, Piarre eta Nakero gau hartan gudukatu diren fur-furiarekin...

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Nakero eta Piarre adixkideak zirena?
2. Zerek erabusten dauku?
3. Zertako gelditu-eta nahiukan zuten gudukatu
hala ere?

III ADITZ IKASKUNTZA.

31 IZAN Bagina. 32. Egin bagineza

33 Erran gabe doana 34. Zirauenon

31 IZAN, Eventuel - 3^eme forme -

(si j'avais été)

Ni izan banintz = si j'avais été

Hi -" bahintz

Zu -" bagine

Hura -" balitz

Gu -" bagine

Zuek -" bazinezte

Hek -" balire = si ils avaient été

32 UKAN. Eventuel 2^eme forme -

Eventualité en général -

O. S.

O.P. P¹⁹

Nik ukan baneraz = si je l'avais ekan baneraz = si je l'avais

Hik -" baheraz } " bahitza

Zuk -" bazineraz } " bazintza

Harek -" baleraz } " balitza

Gu -" bagineraz } " bagintza

Zuek -" bazinezte } " bazinezte

Heiek -" balerazte etc } " balitezte etc

33. JOAN. Indicatif Present. Imparfait

Ni noa = je vais mudoan

Hi noa = } mudoan

Zu zoatzi = } zinoatzen

Hura doa = } joan

Gu goatzi = } zinoatzen

Zuek zoazte = } zinoatzen

Hek doatzi = ils allaient } zoatzen